

# ANAITASUNA

BIZKAIA



192 zenb. 1970, \* Uztailak 30  
Apartado 17 \* GALDAKANO

## "PAPILLON" LITERATURA

Amerikan asi zan, Jendeak droga-zaleen, ganster frakasatuen eta zelanahiko asozialen «aitortzak» gogotik irakurtzen zituala ohartu\* ziran argitarazleak. Fenomenu honen aitzindariak, halan be, aspaldi abiatu ziran literatur gisa honekin: E. A. Poe, edo F. Villon aipatu geinkez, eta «olatu barria» deritxon taldekoak, Frantzian eta Ingalaterran («gazte garratzak») batez be. Eta Amerikatik bueltan sartu jaku ostera be Europan olatu hau, indar barri ta modu arrigarri bategaz oraingoan. «Papillon» fenomenua deritxoe honeri kriticalari frantsesak, eta galeoteen literatura dala esan leiteke. Literatura hau erromantizismoaren eta naturalismoaren artean lotzen da; eta batez be prosan enon dau literatur gisa honek bere udabarría. Amerikan lirika ugari sortzen be ausartu\* da: drogaren edo alkoholen zorabioko ateraldi ta bururazinoak dokumentalki azalduaz burututako poematxoakaz. Agiri danez, «Ana Frank-en egunkaria» ta preso-zelai ta gas-ganbaretako judeguen oroitzapen-literatura be gaurko «Papillon literaturaren» bidea urratzen etorri dira.

Kriminalen eta gaizkinen literatura da gaurko hau: ezbeharren edo krimenen bategaitik gizartearen aurka joan eta gizarteak zigortu egin dituanen «oroitzapen» edo memoriak, gehienetan. Literatura guzti honen ezaugarri jakina, kartzela edo espetxearen deskribizinoa da, idazle bakoitzak bere modura egindakoa. Eta formaren aldeko bitxitasunik nabarmenena, bertan erabiltzen dan izkuntza moldea da: «bizioaren izkuntza» bezala adierazo dau A. Boudard-ek berea. Eta beti be izkuntza gogorra, zakarra, kriminalen artekoa erabiltzen dabe liburuok. Jean Genêt-en izkuntza moldea be «satanismo» legez ezagutzen da.

«Papillon», izan be, ez dator lehenengo. Beste Autore askoren arteko bat gehiago da sail honetan; eta H. Charrière da bere egiazko izena. «Papillon» (euskeraz, tximeleta, mariposa) liburuaren izena da, eta protagonistaren izenordekoa. Cayenne-ko preso baten pasadizuak kontatzen ditu liburu honek: egin bako ilketa bategaitik espetxeratu ebenerik iges egitea lortu arte amabi urte ta 500 orrialdeko bide

gaitza. Seguru asko, gudu ostean Europan gehien saldutako liburua izango da «Papillon».

Western eta polizia-nobelen aldean merezimendu apartekoak dakaz molde barri honek literaturara, dudarik bage\*.

lagaz Saint-Beuve sariaren irabazlea. Anne Huré, bere «Les deux Moniales» («Monja biak»: Goncourt sarirako auttua\*) eta «En Prison» liburuakaz. A. Huré monja beneditanea izan zan; baina fedea galdu eta komentutik alde egin eban, eta, lapurreta batzuk egin



«Papillon» euskeraz tximeleta da eta H. Charrière[egindako nobelaren izenburua, protagonistaren izena.

Sozial-kritikazko literaturaren baitan\*, batez be: batetik, ideologiarik ozta-ozta bape bakoak, eta bestetik, aitortza historiku bizituak eta ikaragarriro gordinak diralako. «Klitxe» ta topiko larregitsu aurkitzen da liburu honeetan; halan be, oraindino: gaizkinaren gizatasun ona, legezinaren (polizgizon, juez, eta beste enparaduen\*) zitalkeria; «gaiztoen» berezko ontasuna, «onen» bihotz bakokeria, etc. Gaiztoak ez dira sekula gaizto, zorigaiztokoak baino.

Molde edo joera (ta jadanik\* moda) honen erakuspide aipagarrienak Frantziakoak iruditzen jakuz: Alphonse Boudard, «La Cerise» («Zoritxarra») nobe-

ondoren, kartzelan amaitu eban. Albertine Sarrazin aipatuko dogu azkenik, bere gaztezaroa «La Traversière» nobelan biluzik biluzik erakutsi deuskuna. Beste Autore gehiago be da dago: F. Trignolet, A. Le Breton, A. Bastiani aipatu leitekez oraindino. Autore guztion obrak autobiografikuak dira, eta, idealizazioaren ikuskeragaz idatzita egon arren, naturalismo bizi biziagaz egindakoa dira.

«Gizarte asetuaren» sistemak ondo funtzionatzen dau; ederto pagatzen dau minik egiten ez dauan autokritika.

Jose Azurmendi

## BARAKALDO

Barakaldo da nire erria. "Baracardo" deitzen deutsoe bertoko kanpotarrak. Ez dakit, zorionez ala zoritxarrez ote dan. Barakaldo orrialde honeetan agertzeak arritu egingo zaitue beharbada. Nik uste dot, ba dala agertzeko sasoa.

Barakaldok entzute txarra dauka euskaldunen artean. Zegaitik? Nor da errudunik aundiena? Nire eritxia hauxe dozue: Holan jarraitzen badogu, Bizkaiko erririk gehienak Barakaldoren antzekoak izango dira. Nahi ta nahi ez.

Barakaldo Bizkaiko erririk aundiena da, Bilboren atzetik, 125.000 bizilagun edo eukiko ditu. Estu-zabalean be ez da txikarrena. Bere barrutian dago Ganekogorta mendiaren gailurra. Baita Zamaia, Apuko, Argalario eta Arroletza bere. Basoak ugari, pinudiak batez bere. Eta baita lau zingira\* be.

Barakaldo, Enkartzinoetan egon arren, antzina Uribe Merindadekoa zan. XIV-garren mendean\* urten eban Merindade haretatik. Izan be, bere bizimodua, bere izakera, Enkartzinotarra izan da beti. Hala ta guztiz bere, Enkartzinoetako errietatik azkena izan da euskerea galtzen. Joan dan mendean\* be euskeraz egiten zan hemen.

Denbora hatan, Barakaldo baserri erri bat zan, Bizkaiko gehienak bezala. 3.000 bizilagun eskas zituan. Baina, orduan be, erri aberatsa zan. Barakaldoko barazkiak\* eta txakolina entzute aundikoak ziran. Ez ahaztu, bere gaurko izena be antzinako "baratzalde" izenetik datorkiola, gehien eritxiz. Beste batzuek "ibarrakaldu"-tik datorrela dinoe.

Joan Mari Mendizabal  
(euskaldun barria)

## MUXIKA

Petra Etxeandia irakaslea Muxikako Areatzara etorri zaneko zidar\* ezteiak\* ospatu dira uztailaren\* 5-ean.

Goizeko 11-tan mezea. Meza bitartean —sarreran, eskaintzerakoan eta komunino ostein— plazan kantatzea galerazo jaken bertsolariak abestu eben. Ondo ikusia dago, elizan be bertsoa ez dala txarto jausten. Entzuten egozarak, euren arretaz eta negar malkoakaz baieztu eben nik dinodana. Bertsolari guztiak Areatzatarrak: Balentin eta Abel Enbeita, Jon Lopategi, Kepa Ortuzar ("Iturri") ta Jesus Mari Deunoro Sarduy.

Mezea ta itzaldia Ibarruriko parroko jaun Txominek egin zituan. Bai itzaldi jakingarria! Ostein, Gernika ta Areatzako ezpatadantzariak nahaste zirala, desafio, banako, binako, makila-ezpata ta zahagi dantza. Neskatillak, ostera, danak Areatzatarrak, arku, zinta ta sagar dantza. Guztiak atsegingarri.

Gero gaztetxoan antzerkia: "Aingirakumak". Ez dakit norena dan, baina Agustin Zubikarairena izan leitekela uste dot. Dotore, eroso, nortasunez jantzita urten eban ekitaldiak.

Ondoren, irakasleagaz ikastolara ibili diran guztiak, bardin ordaindutako "zu ta ni" zidarrezko bat emon jakon, auzune guztiaren aurrean, egunaren oroigarri ta egin dauan lanaren ezaugarri.

Petra irakasleak, itz bihotz-unkigarri ta samurrekin erantzun eban, guztiak eskerrak emonaz. Gero, euskaldunok beti ohi\* dogun eran, ordu biak inguruan, Gernikako "Taberna Vasca"-n auzune osoa jaten. Ehun baino gehiago. Etorri ez zana, ez zan nahi ez ebalako, ezin ebalako baino. Bazkalostean, bertso, kantu, ipuin eta dantza egin ondoren, azkena emon geuntsan hain egun eder eta gomutagarriari. Zorionak, Doña Petra. Eta joan dan igandeko\* jaia, aurreantzean be orainarte legez jarraitzeko indarra ta adorea emoteko izan jatzulakoan gelditzen da zure ikasle

Deunoro

## BILBO

### Aita Arrupe

Aurreko baten esan genduan, Aita Arrupe Euskalerrira etorri zanean, ez ebalu euskerarik erabili, Orain jakin dogu, gutxienez birritan erabili ebalu. Baten, Bilbora etorri zanean, egunkarietara\* bidaldutako agur batean. Bigarrenez, Loiolan egindako itzaldi batean.

## 12 ARRIETATIK

### "Gerediaga" elkartearen Batzar Nagusia

Uztailaren\* 5-ean egin zan Iorretan Gerediaga alkarteko batzar nagusia.

Goizeko hamar terdietan meza errikoia, eskualdeko\* kantari taldeak abestua. Meza ostein, euskal abesti saio labur bat. Honekin amaitu zan alkartekoak ez ziranentzat goizeko egitaraua\*. Ondoren, asiera emon jakon batzar nagusiari.

40 bat bazkide bakarrik bildu\* ziran. Eguraldiak batzarrerera baino, basora ta ondartzara gehiago bultzatzen eban. V. Lasuen lehendakariak danen izenean agurtu zituan bilduak, eta idazkariak\* aurreko batzarreko agiria irakurri eban, gehienbat onartua izan zana.

Diruzainak kutxako gorabeherak azaldu euskuzan, bertako diru urritasuna erakutsiaz. Errietako ordezkariak, egindakoen eta egiteko dagozan ekintzen kontu emon eben. Egin diranak ez goaz hemen aipatzera, lehen bere lerro honeetan agertu dira ta. Egitekoen artean, Artzain Txakurren Txapelketa, Liburu ta Diskoen Azoka, Argazki Txapelketa, Irule\* Eguna, eta abar ei dagoz.

Azkenez, bazkide batzuen asmoak irakurri ziran: Ikastolari buruz arduradun batzuk jartzera, J. Berriozabalgotia Garaiko ordezkariari omenaldi bat egitea, eta abar. Danak onartuak edo gehiago sakontzeko gelditu ziran.

Bertan egon ziran bazkide guztiak igazko ekintzen "Memoria" bat emon jaken.

Bazkalorduan umorea ta janaria alkarren pare ibili ziran; eta, bertoko gazteriak eskainita\*, kafea emon jaken han egozan guztiak.

Arratsaldean, erri kiroletan Mallabi, Izurtza ta Iorretako taldeak parte artu eben, Iorretakoak txapeldun geldituaz. Ha zan arria jaso ta egurra txikitu beharra! Eguna amaituteko, erromeria ederra, "Oinarriak" taldeak alaitua.

Gure eskualdean\*, abuztuaren lehenengoko 15 egunen barruan dagozan jaiak honek dira: 6-an Gerediaga\*ko San Salvador ermitan, 10-ean Berrizko San Lorentzo auzunean, 15-ean Mafiariko Andra Mariak, eta 16-an Durangoko San Roke ermitan.

### Mallabiko Jalak

Bertako gaztediak antolatuta, Mallabian aurtan ospatuko diran jai nagusiak honek dira: Abuztuaren 14-an asiera emongo jake berbena bat gaz. 15-ean, ezpata dantzariak, pelota partiduak, eta Durango inguruko aurreku erregelen txapelketa. 16-an, abeslariak, bertsolariak, eta umeen dantza sariketa. 17-an, arrautzopil eta tortilla txapelketa, karroza erakusketa, eta abar.

### Txistularien Jala

Durangoko Tabira Mendi alkarteak, abuztuaren 16-tik 24-rarte, ostera\* bat dauka antolatuta "Picos de Europa"-ra.

### Mendizaleen Ibilera

Uztailaren 26-an, eskualdeko txistulariak alarde bat egin eben Ermuan, bertako Udalak\* jaietara eroanda. Bazkariak gainera, eskupekoa bere euki ei eben. Ikasbide ederra eskualdeko beste Udal batzuentzat, 25 txistulari bildu ziran.

### Mendizale baten Eriotza

Uztailaren\* 5-ean, daroagun urte aldirako, irugarren eriotzea izan dogu Abadiñoako Atxarte mendi tartean. 22 urteko mutila, Debako semea. Atxera igoten egoala, arri aundi bat jausi jakon gainera. Urrengo igandean\*, meza bat izan zan bere alde Atxarten bertan.

Joan Antonio Aroma

# YUGOSLAVIAKO ALDERDI K. (II)

Yugoslaviako Alderdi Komunista ez dabil intelektuala-kaz baino obeto teknokrata-edo deritxoena-kaz. Autojestinoaren formula oso distiratsua zan paperean; baina, produzinoa neurtzeko orduan, ilunago agertu da. Eskasa produzinoa, ta txarrak jeneroak; horixe emoten eban 1969 urteko esperientziak. Titok teknokratak aurkitu zituan errudun. Baina Alderdiak esku-lotuta dagozala erantzun dabe teknokratak: euren aurkako akusazioa Alderdiaren kontra bihurtu dabe teknokratak. Alderdiak, barriz, dino, autojestino-sistemak ez deusola askatasunik ixten plangintza ondo koordinatu baterako. Baina Titok ez dau autojestinoaren sistema ikus-barritu nahi. Apurka apurka Alderdiaren desmontaje bat ari\* da Yugoslavian gertatzen, teknokraten eta intelektualen eskuetan.

Holan doaz, Yugoslaviako Alderdiaren barruan, tentsinoak eta kontradizinoak ugaritzen, prolemak beti konpromisoz askatzeagaitik. Alderdiaren eta Alderdi ez dan erriaren erantzukizunak\* ondo mugatu ta zehaztu barik dagozalako. Eboluzino hau, halan ta guztiz be, oso onuragarri izan leiteke etorkizunean, Alderdiaren eta erriaren arteko utsunean zubi bat egiteko.

Nazino arazoak eta nazino zaletasuna dira beste mila tentsinoren urrengo iturburua. Yugoslavia, ezaguna danez, nazino askoren federazioa da; eta hau ohargarri\* egiten da Alderdiaren baitan\*. Aspaldidanik ibili dira gorabehera gatx askoren aurrean nazinotasunok; eta, gaur bertan be, amaika liskar\* minduren txakur azurra dago hemen. Beste puntu askotan legez, hemen be konpromiso larregiko soluzino ez-benetakoa emon baita\*. Eta holan, konfliktuok garaitu beharrean, eurretan amildu\* da Alderdia.

Titoren politikazko esannahi ta eginkizunak gauzazko izatetik gero ta sinbolozko ta errepresentazinozkoago izatera ailegatzen ari\* dira. Ta euren politika moduzatu beharrean aurkitu dira nazinotasun bakoitzeko Alderdi-abarrrak, erriaren aurrean. Gero ta irrealagoa baita\* Titoren buruzagitza orokorra\*, erri barneko politika arazoetan behintzat. Alderdi-abar bakoitza norberaren erriagaz estuago lotuaz, ostera, Alderdiaren barruko tentsinoak gogorrago-tzen da.

Tentsinoak ez dira berez txarrak: demokraziaren irudi patriarkal utsa da tentsino bako demokraziaren ametsa\*. Esku zuriko intelektual moralistak eta paternalistak bakarrik esan leikee, nahiago dabela ordenua justizia baino. Erraz igarri leiteke, Errepublikak zegaitik ikarutzen eban Ortega. Baina tentsinoak aprobetxatzen jakitea da, hain zuzen, demokraziaren artea; eta, aprobetxatuz, tentsinoak alkarren kontradizino bihurtzetik salbatzea. Yugoslavian, ostera, tentsinoak alkarren kontradizino bihurtzen ari\* dira. Eta Alderdi Komunista ez da ausartzen\* pluralismoaren uretara salto egiten.

Baina egin beharrean dago, nahi ta nahi ez. Eta arrazoa da, Yugoslavia pluralismorik sakoneneko ta bizieneko lurraldea dala berez (nazinotasunetan, ekonomiazko interesetan, izkuntzetan, kulturetan, pentsakeran, erlejinoan, kondairan, edozetan). Prolemon soluzino, ostera, egiazko pluralismorik bakoa da. Kontradizinoz josita geratzen da, horrela, Alderdi Komunista.

Nazino arteko sozialismoaren pluralismoa asieratik bertatik hain gogorki defendidu dauan Yugoslaviak ezin dau nazino barnean pluralismoa konpondu. Hau ikusita, konprengarriago egiten da Rumaniko esperimientua, bardin Ungariako Kadar-ena be, ta zelanbait\*. Txekoslovakian Husak-ek probatu gura dauana. Halan be, kondaira beti aurrera doala egia bada; ezin esan leiteke Yugoslavia besteok baino atzerago doanik. Izaera pluralistako erri guztiak dagoz, goiz edo berandu, ekintza-molde pluralistak sortu beharrean. Alderdi Komunistak berak pluralismo hori onartu ta aurrera atera ezin dauanean, utsune ikaragarri bat sortzen da Alderdiaren eta erriaren artean. Eta utsune

horrek derrigor dakar diktadura edo krisia. Edo biak. Biokaz dago, horregaitik, komunismoa konfrontaturik. Baina ez komunismoa bakarrik.

Jose Azurmendi

## GARRANTZIKO BI GERTAERA

(Euskera batuan)

Bi gertaera harrigarri izan dira aspalditxo honetan, Europako demokrazia sailean. Alde batetik, Jean Jacques Servan-Schreiber-en garaipena\*; eta bestetik, Harold Wilsonen erorpene\*.

Bi gertaera hoiak oso desberdinak izan arren, zerbait elkar ikusirik ba dute, ustegabeok izatea, alegia\*.

Ofiziozko politiko eta teknokratikoei gehienetan ez zaie atsegin ustegabeok. Berria, bai, asko maitatzen dute, baina baldintza batekin: berri hori antzinakoaren arras\* antzekoa izan dadila.

"Le Soulier de Satin" antzerkiaren personaje batek horixe esaten du: "Berria, bai, berria eman diezadatela. Askok maitatzen dut..., baina lehengoaren berdin antzekoa izatekotan".

Jean Jacques Servan-Schreiber-en Nancy uriko garaipena sopesa bat izan da Frantzian, bai gobernuaren aldekoentzat, bai ezkerreko oposizio delakoarentzat.

Nor da izar berri hau, sortaldetik agertzen zaiguna? Batzuek eta besteek berehala ikusi dituzte mehatxaturik\* beren buruak. Eta arazoiz.

Ba liteke, Jean Jacques Servan-Schreiber-en garaipenak ondoreak izatea Europako politikan. Baina ondore onak izango direnik ez nuke nik esango.

Nere ustez, Jean Jacques Servan-Schreiber hau amerikanoaren iduria bera da; eta bere jokabidea neo-kapitalismo porrokatua izanen\* dela iduritzen zait.

Berria, berria..., baina antzinakoa lakoxea izatekotan!

Federik gabeko zibilizazio honetatik ez gaitu aterako Jean Jacques Servan-Schreiber-en politikak, bera ere\* helburu\* materialetan leporaino sartuta dagoelako.

Gaurko egunean justiziaren aldeko politika behar dugu mundu guzian, eta ez diru-atsegin politika edo ugaritasun politika.

Harold Wilson gizaixoaren hutsa, beste gauza bat da. Nere ustez, Merton fraile famatuak "self-defeating" deitutakoaren exenplo berezi bat da huts hau, besterik ez.

Mertonek sortutako hitzok —"self-defeating prophecy" eta "self-fulfilling prophecy"— oso egokiak iduritzen zaikit, gaurko gertaera batzuk erakusteko.

"Self-fulfilling prophecy" betetzen den profezia bat da. "Self-defeating prophecy", berriz, betetzen ez dena; eta ez da betetzen, hain zuzen ere\* lehen aurretik iragarria izan delako.

Hurbil\* dugun exenplo bat emango dugu. Ba liteke, Unamunok egindako profezia ez betetzea, hau da, euskera ez hiltzea, hain zuzen ere Unamunok berak, nahi ta nahi ez, euskerak laster hil behar zuela iragarri zuelako. Beraz, Unamunoren iragarpene "self-defeating" profezia bat izango lizateke. Ala Jainkoa!

Inkesta\* neutralik ez dago. Inkestak, gehien gehienetan, alde batera edo bestera makurrarazten dute errealtatea.

Hala izan da kasu honetan. Wilsonen aldeko profeziek bera hil dute.

Guretzako ondore handirik ez du izango hiltze honek.

Laboristak nahiz kontserbadoreak, guretzat berdinarik.

Karlos Santamaria

«Irakur Sail» argitarazleak Agustín Zubikarai ondarroatar idazlearen «Bizi Garratz» eta «Mendu Zaharrak» argitara emon barri ditu. Antzerki bien artean, 120 orrialde betetzen dira. Xabier Leteren itzaurrea dakar liburuak, eta 100 peseta balio ditu. Eskatzeakotan: I. Beobide, Ferrerías, 1 - San Sebastián; Agustín Zubizaray, Ondárroa; edo ANAITASUNA, Bengoechea, 33-B, Galdácano.

«El Calendario Alavés» izenburua daroa Gerardo López de Guereñu-k egindako azken liburuak. Bertan agertzen dira Araban urte barruan ospatzen diran gauzarik jakingarrienak.

«Estibaliz» aldizkaria, izen bereko Santuarioan Arabako beneditanoak ateratzen ebena, bertan behera galdu da. Zegaltik?

«Jaunaren Dela», Lazkanoko beneditanoak argitaratzen dabeneko liturgiako aldizkariaren 31-gn. alea atera barria da. Urtean lau aldiz agertzen da. 200 peseta, prezioa.

«Los orígenes del Reino de Navarra» izenburuarekin argitaratu dau liburu barri bat Joaquín Arbeloa erdal eskritoreak, «Aufiamendi» liburu sortan.

Errenderian, «Argi izpi bat», Aldo Benedettik egin eta Txomin Amonsarainek euskerara itzulitako antzerkia emon izan da, Bergarako «Ernai» taldeak antzeturik.

Derion (Bizkaian) euskal alfabetatze kanpaina bat emon izan da uztailaren lehenengo astean, Resurrección María de Azkue kolegioan (Abadegai Etxean), euskeraz jakin arren, izkuntza hau gutxi ikasi daben elizgizonentzat. Ogetabost ikasle ari izan dira, bizkaierazko ortografia, fonetika, deklinabidea, aditza, joskera eta literatura ikasten, beti ere euskera baturantz joaz. Eurretari 20 abadeak izan dira, iru monja, jesuita bat eta sakramentino bat. Irakasleak Mikel Zarate ta Karmelo Etxenagusia izan dira. Urrengo urtean, zerbait aundiagorik egitekotan dira.

Irunen, Euskerazko Poesi Txapelketa bat eratu da. Rima, neurri ta gai aldetik, askatasun osoa emoten da. Lan bakoltzak 400 bertso gutxienez izan beharko ditu. Saria, 40.000 peseta. Nahi daben guztiak parte artu leikee. Lanaren iru kopia bidaldu behar dira, eta sobre txiki batean egilearen izena eta bizitokia. Bidaltzeko zuzenbidea: «Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa», Garibay 13, San Sebastián.

Gazteizen, Santiago jaietan, aizkolariak, arrijasotzaileak, aharri topekak eta Euskalerriko sokatira sariketa izan dira.

Aramaion, euskeraz egiten dan Arabako erri txoan, arditxakurren azkartasun sariketa bat izan da uztailaren 5-ean. Txapelduna, «Turko», Aramaioko Pedro Zubizarretarena. Zazpi txakurrek parte artu eben, jendea polito egon zan, eta jantzi sariketa Astondoa anaiak irabazi eben.

A. Goenaga, Hemingway-ren «El viejo y el mar» euskerara itzuli ebana, Estatu Batuetako Siracusatik etorri barria da, eta itzaldi bat emon dau, «uts» itza oinarritzat arturik. «Uts» itzak ba ei dauka zerikusirik Oteizaren zenbait ideiekin.

Arrangoitzen (Laburdin), bertako ikastolaren alderako jaldid batean izan ziran «Oldarra» dantzari taldea, Mattin, Xanpun eta Esponde bertsolariak, eta Laboa, Irigarai, Patxika, Etxamendi ta Larralde kantariak.

Gazteizko Udaleko kontzejalak diran Estarrona, Ruiz de Mendoza eta Aspe, Leningradora, Rusiako uri nagusira joan dira, bertan ospatuko dan Erri Anañtuen VII-gn. Bilerara.

Ignacio Busca Sagastizabal musikarari ospetsu zanari orotari bat jaso deutsoe Zumarragan.

Peraltan (Nafarroan) mimen sail aundiak erre dira.

Elizondon (Nafarroan), datorren ikastarorako, ikastola bat zabalduko da.

José Eguía de Sabando, arabar abadeak, Vaticanoko «Escuela de Paleografía y Diplomática del Archivo Secreto»-ko diploma irabazi dau.

Gazteizko «Araba» izeneko koralak disko bat aterako dau laster. Jakina danez, euskal koral hau Arabako Diputazioaren ardurapean dago ta bere zuzendaria Sabin Salaberrri da.

«La Batalla de Vitoria», Beethoven-en kanta ospetsua diskotan jarria izango da laster batean.

«Euskal Meza»-ren diskoa laster ateratzekotan dira. Meza hau Liturgiako euskal batzordeak Euskalerrri osorako onartu dau, eta orain disko eder batean agertuko da.

«La foralidad guipuzcoana» izenburua dakar Antonlo Cillán Apalategui jaunak argitaratu dauan azken liburuak. Ignacio M. de Lojendio jaunaren itzaurrea dakar, eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren babesean argitaratua izan da.

Abetxukon (Arabian) 800 ikaslerentzat erdimailako ikastetxea bat jaso dabe «Inmaculada Concepción»-eko monjak.

Arriaundi auzunean (Bizkaiko Durangon) bertsolariak izan dira Santa Marina egunean: Lopategi, Enbeita, Azpillaga eta Gorrotategi. Goiz eta arratsalde, itxura onean jardun eben, eta entzuleak ere ugari ziran.

EGAN izeneko aldizkariaren aurtengo lehen alea argitaratu barria da. Oso jakingarri dan aldizkari honetako ale honetan agertzen diran idazleak eta artikulatuak honeexek dira: E. Erkiaga, Larreko, Luis Mitxelena, Pro domo. A. Irigarai, Baztan dantzak, Lino Akesolo, Unamuno euskeraz, Iñaki de Lete, Ixilik, Jon Etxaide, Etxahunen «ofizialenak», Pelay Orozco, Aitona ta billoba (Bozas Urrutiak euskertua), X. Kintana, Denboretatik zehar, J. Azpeitia, Krabelin gorriak, J. Goikoetxea, Kapañen gaiztakerie, Bitañe, Kontu kontari, A.A., Jan-edanak, Juan San Martin, Adabakiak, Markue, Oar Laburrak, A. Zubikarai, Larrunpean, Juan San Martin, Bibliografia, Eskatzeakotan: EGAN, Seminario Urkijo de Filología Vasca, Palacio de la Diputación, San Sebastián.

«Batasunaren Kutxa» liburu egunokaz zabalduko da irakurleen artean. Liburu honetan agertzen dira euskeraren batasuna egin ahal izateko bideak.

«Tour de France» izeneko Txirrindulari Txapelketa ospetsua bukatu barrian, euskaldun txirrindulariak honetara gelditu dira klasifikazio jeneralean: Galdos (arabarra), 10-gn.; Zubero (bizkaitarra), 15-gn.; Gandarias (bizkaitarra), 20-gn., ta mendikoan 2-gn.; Gabika (bizkaitarra), 23-gn.; Aurelio González (bizkaitarra), 25-gn.; Perurena (giputza), 90-gn.



**Txairo**

Lorerik ederrenak  
Arrokeria  
Ana  
Zuri bakarrik



**Naikari**

Promes bat  
Esalozu  
Hurrezko sasola

**Disko etxe guztietan salgai.**

## Beloke ta Euskal-Herria

(Euskera batuan)

Orain direla urte batzuk, Baionako Ximun Haran-ek Belokeko Beneditanoei euskal meza bat grabatu zien eta gero disko handi batean argitaratu.

Azal gorridun disko hau Euskal Herri osoan zabaldu zen, edo hobeto esanda, milaka. Eta Vaticano Bigarrena amaitu ondoren, mezak euskeraz hasi zirenean, disko honetako doinu ederrena, "Saindu, Saindu, Saindua", Euskal Herri osoan abestu zen. Eta ene gusturako, oraingo "Santu, Santu, Santua" hitzekin egindako doinurik ez da haren parera heldu.

Nik ez nekien Beloke zer zen, ezta ba zenik ere. Eta, seguru asko, zuetariko gehienek ere ez. Beraz, disko horrek ez dauku bakarrik meza eder bat zabaldu, baita Beloke ta hango Beneditanoak ezagutarazi ere.

Baina, disko hori aparte, Beloke beste zeredozergatik ere ezaguna da. Nork ez du entzun Aita Iratzeder-en izena? Haren salmoek, haren olerki unkiarriek Aita Iratzeder-en izena Euskal Herri osora zabaldu dute.

1875-garren urtean sortu zen Belokeko Abadetxea. Beloke, etxe zahar baten izena zen eta bost herriren artean dago —Hazparne, Bastida, Baroze, Bezkoitze ta Ahurti— Ipar Euskal Herriko mugan.

Karlsten gerra bitartean, gipuzkoar gazte askok ihes egin behar izan zuten, eta Beloken aurkitu zuten aterpe.

1899 urtean, Belokeko fraileek Ameriketara zabaldu zituzten etxe batzuk, hara joandako euskaldunak zerbitzeko.

1903 urtean, Frantziako lege berriek zarratu egin zuten Belokeko Abadetxea, eta fraileek handik irten egin behar. Batzuk Gipuzkoako Idiazabalera etorri ziren, eta handik Lazkanora.

1926 urtean, berriro ireki zen Beloke; eta 1963 urtean, bertako fraile talde bat Afrikara joan zen, Dahomey-ra, etxe berri bat zabaltzeko asmotan.

Oraintsu, Beloken bertan eliza berri bat egin dute. Euren bizitza, otoitzean eta lanean igarotzen dute. Otoitz gehienak, guztien artean eginak eta kantatuak.

Euskeraren alde asko egiten dute, eta gaurko euskal liturgian dadukaten itzala Euskal Herri osora zabaltzen da.

Gure gaurko egoera larrian, Beloke paradisu bat da. Hara Aita Iratzeder-en hitzak: "Iduritzen zaiku, Eskual Herrirat eta mundu guzirat Kristoren Erreinua zabaltzeko modu hobereana hau dela: Kristoren Erreintxo bat elgarrekin moldatzea, otoitzean, lanean, elgarren maitasunean biziz, Jainkoaren goresgarri eta lurreko bihotzen altxagarri".

Gure iluntasunean, Beloke argi bat da. Argi honek noraino argituko gaituen, etorkizunak esanen dauku. Baina sutaldi ikaragarrienak txinpart humil batetik hasten dira.

Beloke, sutu ezazu izpiritualtasunez Euskal Herria!

Xabier

## BIZKAIKO ELIZATIK

### Inkesta jakingarri bat

Jakina denez, 1969-ko martxoan inkesta\* bat zabaldu zan Bizkaiko abadeen artean, misinoetan diharduenak ere barruko zirala, Uncilla ta Olaguena abade jaunen ardura-pean. Urte bereko abenduan batu ziran erantzunak. 700 inkesta liburuxka banatu ziran, eta ehuneko 95, 4 abadek erantzun eben. Elizgizonen aldetik —eta erritarren aldetik— gogo aundia dago inkesta horren barri jakiteko. Entzun denez, erresultadua uda ostean argitaratuko ei da.

### Idazki ezagunak

Joan dan ekainaren\* 1-an Bizkaiko zenbait\* abade giltzapera eroategaitik Zirarda jaunak egindako idazkia, Bilboko elizbarrutiko boletinean agertu da, euskeraz eta erderaz, uztail-abuztuko zenbakian.

### Kargu barriak

Angel Maria Etxebarria, misinoetatik etorria, Bilboko Tivoli-ra. Luis Aburto, misinoetatik etorria, Bengoetxe-Galdakanora. Jose Iriondo, Zorrotzara. Francisco Javier Armendariz, Zorrotzara. Antonio Aranburu, Galdamizera.

### Ikastaldiak

"Liberación humana y salvación cristiana" gaiari buruz itzaldi batzuk emon izan dira Derion, jarraiko honeek izlari zirala: Alfonso A. Bolado, José María Rovira, Enrique Freijo, José María Setién, Rafael Belda, Casiano Floristán ta Pedro Ugarte. Itzaldi guztiak erderaz izan ziran eta 23 entzulek parte artu eben, guztiak abade edo erlijiosoak.

## "JAINKOA GAUR" edo liburu baten galduazotzea

"Jainkoa Gaur" izenarekin liburu bat idatzia genduan lau egilek. Lau zati zituan, alkar ondo josiak, nahiz eta egile bakoitzak zati bana idatzi. Idazleak: Markox Amundarain, Esteban Onandia, Dionisio Amundarain eta Eusebio Igarza. Laurak, Lazkanoko beneditanoak. Lau horreetatik, bi gara atzera edo aurrera jo dogunok, eta apaiz eta fraile izateari utzi deusagunok.

Liburuaren gaia: egiazko Jainko baten ikuspegi bat emon nahia. Zati bakoitzaren banaketa horrela zan. Lehenik, "Jainkoaren eriotzaren" teologilarien laburpen bat agertu. Gero, Jainko isilaren arrastean bizitzeko burruka etorren, Irugarren, giza-emakumeen osotasunak ezin daike Jainkoa ukatu. Eta azkenik, BAI aundi bat Jainkoari: Jainkoa ez da il, bizirik dago, eta gudan eta gurekin bizi da.

Liburu hau inprentan egoan; lehenengo probak ikusiak eta zuzenduak geunkazan. Ez genduan inoren baimenik eskatu, eta ez genduan eskatu gura ere.\* Gai honetan, eta gaur, ezin dogu ezelango zentsurarik onartu; batez ere Elizaren barruan. Elizaren buru eta agintariak ez dabe horrela pentsatzen; eta liburuaren agerketa ukatu egin euskuen, zentsuratik pasatzen ez bazan.

Gure liburu hori Donostiako Obispadura eroan eben, zuzen ala oker ote egoan esan eien. Zortzi ilabete barru erantzun eben. Eta eroan baino lehen jakindako erantzuna jaso genduan. Iru zati, oso osorik zuzen egozan; baina beste bat, lehenengoa hain zuzen ere,\* oker egoan eta zuzendu egin behar zan. Zati hau, neuk idatzia zan. Eta nik ez dot onartzen Elizaren zentsurarik, eta ez dot zuzendu nahi izan. Beraz,\* liburua abortatu egin da.

Donostiako Obispaduak honela erantzun dau gutxi-asko, nire zatiari dagokionez: "Ikusten denez, egileak ondo eza-gutzen ditu atzerrian gai hontaz idatzi dutenak, baina bere lan hontan ez da aski\* garbi bereizten bere iritzia eta besteena... Zein irakurleentzat idatzia dan begiratuaz, zati batzuk zuzendu eta argitu egin behar lirake".

Galdera\* asko egingo neukez, baina nahiago dot dana horretan utzi.

Markox Amundarain

## ELIZGIZON BARRIAK

### Nafarroan

Uztailaren\* 5-ean, bederatzi gaztek artu dabe apaizgoa Tabera Kardinalaren eskuetatik, Iruñeko Jesuiten elizan: Luis Lacabe (Congora joateko), Alberto Pérez, José Manuel Valverde, Alejandro Goñi, Miguel Azagra ta Guillermo Beaumont (guztiok Jesusen Lagundikoak, azken irurok Venezuelara joatekoak). Eurokin batera Kamilotar bat eta Salesiano bat ere\* apaiztu ziran.

### Arabian

Uztailaren 5-ean, amabi elizgizon barri ordenatu dira Arabian, Gazteizko Abadegai Etxean: Jabier Arregi, Jesus I. Gómez, Carmelo Martínez, Alfonso Carlos Ocio, Gerardo Salazar, Luis Miguel San Juan, Gazteiztarrak; Cruz Briones, Biaizteritarrak\*; Juan Cruz Iñiguez, Murgiatarra; Jesus Marauri, Moredatarra; Jose Ramon Urbina, Miranda de Ebro-tarra; Javier Viteri, Elosutarra; Alfredo Zabala, Oiendarra.

## ANAITASUNA BIZKAIA, Amabosterokoa, 13

Zuzendaria: Angel Celayeta Guisasa.

Jabea: Kantauriko Frantzizkotar Irugarrendarrak, Durangon, Intxaurrondo, 3.

Idazkola ta banakola: Bengoetxe, 33-b. Galdakano. Tel. 396 eta 397. XVIII-gn. urtea. 192 zenb. 1970,

Uztailak 30

D. L. Bi. 1.753-1967.

Inprimatzen dau: Imprenta IDEAL-ek, Galdakanon, Bengoetxe, 70.

Irtzen dau: RALI

# Mitxelena- itzaldiak Donostian

Mitxelena izenak erakarrira, jende asko bildu\* zan Donostiako EUTG-en, uztailearen\* 8-tik 14-rarte. Eta batez ere jende gaztea: ikasleak eta erri ekintzaileak gehienbat. Goizero bi itzaldi eta ondoren alkarrizketa.

Asieratik, izlariak egitekoaren zailtasuna agertu euskun: liguistikaz itz egitea ez da fisikaz edo kimikaz itz egitea. Horregaitik, munduko izkuntzalarien artean eritxi asko dago.

Lehenik, izkuntza, errealitatea eta pentsamentuaren artean izan daiteken zerikusia aipatu eban Mitxelena. Gai sakona baizen korapilotsua hauxe; lehenengo begiraldi batean uste geinken baino ilunagoa behintzat. Gainera, izkuntza, pertsona bakoitzaren gertaera dalarik, gizartekoa ere\* ba da; eta gizarteko izate hau da batez ere eztabaidaren arragoan\* garbitu eta astindu ohi\* dana.

Gizartekoa danez, berau dogu gizatalde baten ezaugarriak eta bereizgarriak indartsuenetakoa. Izkuntza bat erabiltzen dabenak alkartuta sentitzen dira, besteak bereiziaz gelditzen diralarik. Izkuntza, beraz,\* lehenik alkar aditzeko da, baina bigarrenik bereizgarri ere\* bai, eta hau zenbait momentutan bizi bizi sumatzen ei da. Ikurrin bat ezaugarria da, baina izkuntza askoz ere biziago eta nabarmenagoa da.

Sarrera egin ondoren, gaurko linguistika teorien barri emoteko, historia laburpen bat egitea egokiena zalakoan, antzinako *Linguistika tradizionala* azaltzen asi jakun. Linguistika era hau Antzinatean\* asi, eta Erdi Aroan\* zehar XIX menderarte\* nagusitu zan Mendebalean.\* Bere gramatika legeak izkuntza idatzian oinarrituak egozan. Ahozko mintzaira ez eben haintzat artzen jakin. Gramatika zaharren giro hau aldi batez gutxietsia\* izan bada ere, Chomsky-ren teoriak barriz ere\* modan jarri dabe.

Lehenengo gramatika zale honeek, oster, ez eben konprenitzen zergaitik aldatzen zan izkuntza. Eta 1800-gr. urtean gutxi gorabehera Rask eta Bopp-ek gaurko linguistikari ekin utsoen *Konparatismoarekin*. Honeek, fonitika legeak dakarrezan aldaketak deskubridu zituen; honela esplikatu nahi izan ebezan izkuntzen artean dagozan antza eta diferentziak. Mitxelena esaten euskunez, gaurko euskera eta orain bi mila urtekoaren artean dagoan alde gaurko gaztelera eta orduko latinarenaren artekoa bezalakoa izango zan. Eta euskeraren euskalkietan zatitzea eta lagartzea ere bide bardintsuetan gertatuko zan. Izkuntza bati eutsi egiten ez bajako, mila zatitan ugaritzen baita,\* denborak joan ala.\* Eta izkuntzaren inertzia oni politika, ekonomia eta gizarte arazoak gehitu behar jakoz.

Linguistikaren historia laburpen honetan *Estrukturalismoa* aipatu eban Mitxelena, beraren kritika jakingarri bat eginaz; eta azkenik *Gramatika generativa* dalakoa eta *Transformazionalismoa* azaldu euskuzan.

Teoriari egokion lehenengo zati hau, lehor samarra zan berez; baina Mitxelena abila izan zan arintasuna emoten, mila exenploekin eta dana umore fin batez koloretuaz.

Bigarren zatia biziagoa eta praktikoagoa izan zan: *Kultura eta izkuntza*. Hona hemen emondako puntu batzuek: *mentalidad prelógica* dalakoaren auzia; izkuntza, lenguaje bezala, beharrezkoa eta nahikoa da giza-kulturarako; printzipioz, izkuntza bat beste edozein izkuntza baizen egokia da; izkuntzaren egokitu beharra; izkuntza historia-aren aztarna; zenbait\* eritxi kultura eta izkuntzari buruz.

Bukatzeke, izkuntzen klasifikazino bat eskaini\* euskun. Oso ederki azaldu eban zer zan izkuntza *standard, classical, artificial, creole, pidgin* eta abar. Eta hortik euskeraren batasunera jo genduan: Denbora nahiko izan ez, puntu hau behar zan sakontasunez aztertzeke; eta horregaitik beste ikastaldi bat antolatzea erabagiz zan; gaia: *Euskeraren batasuna*. Garbi dago, euskeraren batasuna lortu nahi baldin badogu, aurretik euskaldunen batasuna behar dogula. Eta pertsonen batasuna, gaur egunean, gizon batek bakarrik lortu daike. Mitxelena jaunak. Inok ez ditu ezagutzen, berak bezala, izkuntzaren legeak; inok ez, berak aina, euskeraren izatea; gutxi, berak beste, Euskalerra maite izan.

Irailaren\* azkenetan emongo diran itzaldi honeek garrantzi aundikoak izango dira euskeraren bizitzarako.

F. Aldasoro

# Antzerkia ipar Euskal Herrian

(Euskera batuan)

Antzerkia bizi eta azkar da Ipar Euskal Herrian. Hamar bat talde on ba ditugu, eta hola segituz uste dugu aurrera ba goazela.

Bainan antzerkia ondo baldin badugu, eskerrak zor dizkiegu bereziki bi idazle famaturi: LARZABAL Jaun Apeza (100 obraz goiti egin baititu\*) eta de MONZON Jaunari, honek ere asko idatzi baitu\* bere olerki arradoa sartuz antzerkian.

Duela lau urte muntatu edo moldatu dugu Batasun bat: ANTZERKILARIEN BILTZARRA. Antzerkilari guziak bilduz,\* nahi ukan\* dugu indar berezi bat eman gure teatroari.

Herri bakoitzeko taulari onenak hartuz, Baionan eman ahal izan ditugu, azken urte hauetan, hiru Antzerki. "MATALAZ" eta "IBANETA" LARZABAL Jaun Apezarenak, eta azkena: "BAI ALA EZ", Daniel LANDART gaztearena.

Azken obra hau emana izan da bestalde\*: Donibane Lohitzunen, Uztaritzen, Donibane Garazin, Danapaleun eta Hazparnen.

Herri tipietan ere\* ez dagoz lo. Heletan eta Alduden eman dute: "HIRUGARREN ITZA"; Bezkoitzen: "SUEDA-KO NEXKATXA"; Irisarrin eta Donaixtin: "IHAUTERIAK"; Baigorri: "URRIKI LATZA"; Amorotz-Behaizen: "OILATEGIAN".

Itxaropen dugu datorren urterako hobeto organizatzea eta gehiago herritan sartzea.

Teatroari esker, asko gaztek hartzen baitute\* kontzientzia Euskaldunak direla, Euskeraz mintzatuz; kultura zer den ulertuz, Euskal gizona baita,\* bere onarentzat, askatuko.

Daniel Landart

## "EL DESIERTO ROJO"

(Antonioni-rena)

Antonioni-ren filme hau orain sei urte egina da. Oraintxe daukagu guk pelikula hori ikusteko era, eta "Arte y Ensayo" deritxoen aparteko zinetokietan bakarrik. Filme honek gauza barri bat dakar: kolorea. Venezian, 1964-eko zine festibalean, "Urrezko Lehoia" irabazi eban.

Antonioni-ren pelikula guztietan ideologia bat nabaritzen\* da: gizonen artean ezin alkar ondo artzea, batak bestea ezin aditzea. Horixe agertzen zan, gure artean lehenengo emondako "La Noche" eta "El Eclipse" pelikuletan. Eta oraingo honetan, horixe berri azaltzen da.

Antonionik bere pelikuletan analizatzen dituan personaje guziak, batez be emakumeak, zorion bakoak, utsak, bakartiak dira: euren barruan, euren inguruan ez dabe bizi izateko motibu sakonik aurkitzen. Uste dot, Antonionik bera bizi dan mundua erakutsi gura deuskula: burges soziedadea. Eta burgesia hori aspertuta, bizi zezagaz gogait egin da, ohituretan usteldua, artuemonetan guztia agertzen jaku. Beraz,\* Antonioni mundu horren testigu jatorra dogu; eta bere filmeak ausartu egin beharko doguz, Italia te Europako gizarte klase baten alderdia ezagutzeko.

Beste pelikuletan holan izan bada, oraingo onetan zeredozer gehitxoago adierazoten deusku. Personajeen bakartade horrek, neurosi horrek, esplikazino bat dauka: maki-ekin egindako soziedadea da errudun; soziedade horrek zapaldu egiten dau gizona, tresna bat balitza legez. Eta ahaleginak egin arren, personea ezin leiteke osatu, inguru gaxte baterik dago ta (industrializazinoan).

Pelikularen amaieran amak eta umeak dauken alkarrizketa, mamintua da. Tximinitik ateratzen dan ke oriari begira, ea ha zer dan itaunduten deuto umeak; eta amak gaxteko benenea dala erantzun. "Eta txoritxo bat hortik zehar egaz joan ezker, el egingo litzake?" "Orain txoritxoak ez dira egundo bere hortik zehar joaten, ene semetxo".

Personaje honek dituen problemen erantzuna oso erraza dala esan leiteke: nahikoa da maitatzea, besteakaitik arduratzea. Baina erantzun hori ez da Antonioni-ren pelikuletan agertzen; personaje guziak norberekeriak janda dagoz. Kristinau usamik be ez da inondik somatzen.

Kolorea erabilten, benetan habila da Antonioni; planoak ikusgarriak dira. Honen urrengo egin dauan pelikulan be, kolorea erabili dau, baina oraindik ikusi daukagu. Planoak luzeak, geldiak; euren bidez, ezina baino sentimenduak, barrua, obeto ezagutzeko. Horregaitik, ikustailu asko pelikula honekin aspertu egiten dira. Irustu dagoanak berea egin behar dau sentimentuetan sartzeke, eta problema horrek ulertzeko.

Benito Arsole.

# Euskal Literaturan behar duguna

(Euskera batuan)

Euskaldunen artean aurrelari edo progresista direnek, ANAITASUNA hartzen dute. Beraz,\* gai hau erabiltzeko, aldizkari hau iruditu izan zait egokien.

Orain arterainoko euskal literaturari begirada arin bat ematen badiogu, hauxe ikusiko dugu: olerki, bertso ta erlijiozko liburu asko; ta beste gai guztietan, ipuin, nobela, saiakera, texto ta zientzia liburu gutxi.

Honekin ez dut esan nahi, bertso ta erlijiozko liburu gehiegi dagoenik. Dagozenak ondo dagoz, eta betoz gehiago ta hobeago. Bestetariko gaiak ere\* erabili behar ditugula esan gura dut.

1969 urtean hasi zen euskal nobelagintzaren gorakada, ta 1970 urtea bide beretik doa. Hau, euskerarentzat, mesedegarri izanen\* da, nobelak erraz eta atseginez irakurtzen dira ta. Euskerak idazleak behar ditu; baina irakurle masa haundi bat beharrago, idazten dena irakurria izan dadin, euskal liburuak Euskal Herriko zokondo guztietara hel daitezen, hitz batez, euskera kultura arloan landua izan dadin.

Baina, nobelak idatziaz, irakurle klase bat irabaziko dugu: nagusiak.

Eta gure mutil eta neska gazteak? 10-16 urtekoak?

Umeentzat, 1969 urtean, ipuin polit eta ondo presentatuak argitaratu baziren ere, mutil eta neska gazteak ez ditugu kontuan eduki.\*

Non ditugu euskeraz TARZAN, GUILLERMITO, HEIDI ta maila horretako liburuak?

Ikastoletatik atera edo oraindik ikastoletan ari\* diren neska ta mutilok kontuan eduki behar ditugu.

ANAITASUNA-ren irakurleen artean euskal literatura-ren hutsune hau bete nahi dutenei dei hau egin nahi diet: 10-16 urteko euskaldun neska-mutilek beren mentaliterako egokiak diren liburuak behar dituzte. Zeuok batez ere, ikastoletako andereño ta maisuok, zeuok zarete horretarako gai.

Baina, lan hau amaitu baino lehen, horrelako liburuen idazle izan zaitezketenoi kontseilu batzuk eman nahi dauz-kizuet:

- gai interesgarri bat hautatu\* eta arin erabili.
- euskera batuan eta ahal denik errazen ulertzeko moduan idatzi.
- lana ex dadila luzeegia izan.

Kontuan hartu behar dugu, jendeak ez duela euskeraz irakurtzeko erraztasunik, eta gure aldetik jende horri lagundu egin behar diogula.

Xabier Gereño



Villa Zuti - P. Artola - ATEGORRIETA - S. SEBASTIAN

# EZ NATOR BAT

Joan dan malatzaren 24-eko ZERUKO ARGIA eskutan artu, eta hauxe irakurten da bere editorialaren atal berezian: «ZERUKO ARGIA auzitan».

Ez dago barrero guztia aztertu beharrik; baina bai, ez dakit zelako norbere buru garbitzea agertzen dala.

Hona hemen halako bere zati batzuk: «**Ez diktadore eta ez anarkista, demokrata baizik izan nai luken aldizkariak bere burua taide jakin bati saldu omen dio.**» «**Ez omen da batzuen lanik argitaratzen. Euskera batuaren aurka omen dago. Galbai estuan aztertuak omen dira zenbaitzuen idaztiak.**» «**ZERUKO ARGIA-k ez du oraindik talde jakineko idazlerik baztertu.**» «**Idazle batzuk utzi diote ZERUKO ARGIA-n idazteari. Zergatik? Beroiei galdetu.**» Baina guk ezin argitaratu, irixten ez dan idaztirik».

Azken lerroa neuk arraiatu dot. Beste hauxe bere ba dino: «**ZERUKO ARGIA-k zeifena dan jakin nai izaten du, atera aurretik, ezizenez izenpeturik datorren lana. Arria bota eta eskua gordezten duan iñor ez du nai.**»

Nahikoa da. Lehenengo zatiari hauxe erantzungo neuskio: Ez dakit, ZERUKO ARGIA-k bere burua talde jakin bati saldu deutsan ala ez; baina ez dot oso demokrata ikusten, eta norbaitzuen interesei jarraitzen deutsela uste izan dot sarri baino sarriago azken denbora honeetan.

Bigarren zatiari beste hau dinotsat: Batzuen lanik ez dala argitaratzen? Egia andi andia da hori, nire lan batzuk bere ez baititu\* argitaratu, ezta beste batzuenik bere. Ez dakit, euskera batuaren aurka ala alde dagoan; baina zein batuaren jakin nahi neuke, ez baitetsat\* ikusten Arantzazun artu ziran erabagien zaletasunik. Horrexegaitik dirudi, hain zuzen bere, erabagi ha-reen aurka dagozaren influentziapean dagoala ZERUKO ARGIA, edo bere zuzendaritza.

Ez dakit ZERUKO ARGIA-k jakineko talderik baztertu dauan ala ez, baina bai zenbait idazle edo euren lan.

Idazle batzuek bertan idazteari laga baldin badeutsoe, eurak dakiela, bai egia galanta. Penagarria benetan, baina zabaltasun gehiago behar geunke.

Hona hemen barriz lehengo lerro honeek: «**Baina guk ezin argitaratu, irixten ez dan idaztirik.**» EZ NAGO KONFORME! Ez da hori egia. Gaur ezin gaitakez horrelakoak esaten ibili. Behin baino gehiagotan ez dira ZERUKO ARGIA-n neuk bidalitako idaztiak azaldu. Zeintzuk diran motibuak?

Batean, bidali neban lan bategaitik, «polemika» aterako eba-la erantzun eustan itzez itz ZERUKO ARGIA-ren buruak. Erderaz argitaratutako **euskal usain nahiezko** liburu bati buruz egina zan kritika ha. Polemikaren bildur ote gara? Aspaldidanik daukaguzan lege aldetiko arrazoiak be mailu berberaz joten gaitue, polemika kaltegarria dala ta, edo euren jomuga nahien aurka doazalako gure ustezko arrazoiak. Jaio ginan ezkerotzik, ez dogu beste gauzarik ezagutu. Polemika eta eztabaida behar dogu, eta ez lozorroa eta konformismoa edo egiaren bildur dan isiltasunik. Eztabaida zintzoan benetako argia eta arrazoiak bila daigun. Ez gaitzean besteen arrazoiaren bildur izan.

Beste batean, idazkia luze zala; beste batean, erantzunik bere ez; eta horrelaxe, gauza bategaitik edo besteagaitik, idazlanak baztertuak. Norbere ogibide estuari lapurtzen jakon denboraxoa emonik, zeredozer lan egin nahi baldin bada, edo gure euskaldun bihotz kezkatuak zerbaitetara bultzatzen gaitualako, alferriko lanetan jausten gara. Kasu honetan behintzat, nire lan merkeok egiaren izenez bidaliak izan dira.

Benetako demokraziatzko zentzu gutxi ikusten dot gu guztion artean. Aldizkarietan, ostera, euskal aldizkarietan, nire ustez, PRINCIPE DE VIANA-ko euskal atalean nabaritzen\* dot halako demokrazia edo bardintasun nahiezko giroa. Osterantzean, interreskeria gehiegi daukagu gure artean.

Egia esan, benetan libre izango litzaken aldizkari baten preminan gara Euskalerrian.

Eztabaida garaian bizi gareala? H bai eta H ez? Euskal batasuna baietz eta ezetz? Zorioneko H hori eta zorioneko eztabaida! Aspaldian idatzi barik lozorroan egozan asko be, idaztera jarri ditu ta! Zuzperraldi giroan aurrera joan gaitzean; eten bariko zirikatze batean jardun beharra dogu euskaldun mada-rikatuok.

Imanol Lasplur

# *Bizkaiko Bertsolari Gazteen Bigarren Txapelketa*

Era honetako lehenengo txapelketa, Busturiko Altamiran jokatu zan 1968-an. Aurten Ajurian eta Ibarrurin egin da.

Lehenengo saioa Ajurian jokatu zan ekainaren\* 28-an, eta bigarrena ta azkena Ibarrurin urrengo egunean.

Lehiaketa honetara, sei bertsolari azaldu ziran: Joseba Andoni Enbeita Muxikakoa, Silbestre Monasterio Muxikakoa, Javier Bidaburu Ereñokoa, Amiaz Izpazterrekoa, Amurritz Etxanokoa, Usaola Berrizkoa.

Eguerdiko ordubatak puntuan asi ziran egun bietako ekitaldiak. Bakoitzari puntu bina, gai bat eta tema bat emon jakozan. Bai puntu, tema eta gaiak, inoiz inon erabili bakoak eta gaurkotasun osokoak izan ziran. Epaiketa, azken bertso-sariketako era berean egin zan. Entzuleak, aho zabal eta arreta osoz. Ha lako ikuskizunik ez zan Ajurian ez Ibarrurin inoiz egin. Epaitzeko era honek jendea adi, isilik eta arduraz edukiten dau. Gainera, eta hauxe da behinena\*, juezak emoten zituen puntuak begiratuaz, bakoitza kontsekuentziak ateratzen asten zan: bertso honek zegaitik puntu gehiago edo gutxiago behar ote zituan beste harek baino...

Egun bietako ekitaldiak amaitu ondoren, Ajuria ta Ibarruriko puntuak gehituta, Bizkaiko bertsolari gazteen txapelurdu Berrizko Usaola gelditu zan.

Txalo zartada ederrak entzun ondoren, Usaolak azken agur bikain bat bota eban, bere poza barrendik azaleratuaz.

Enbeita bigarren, Amurritza irugarren, Monasterio lau-garren, Amiaz bosgarren, Bidaburu seigarren.

Entzuleak, komisinoko gazteei, Ibarruriko kontzejalei, juezei, puntu jartzailei eta laguntzailei zorion eta esker emonka ebiltzan. Famili arteko jai bat zala esan eiteken. Aipatu ditudan guztiak artu beiez nire zorion eta eskerrik beroenak. Ea, datorren urtean, aurten egin dan ekitaldia obatzea lortzen dozuen.

*Deunoro Sarduy*

## **"AGUIRRE" Literatur Sariak**

(Euskera batuan)

Aurten hirugarrenez eman da "Jose Antonio Agirre" saria. Lehenbizian Gandiaga frantziskotarrak irabazi zuen, bere "ELORRI" poema-liburuaz. Bigarrena Aita Onaindiak hartu zuen, "GURE BERTSOLARIK" zeritzon liburuarekin. Aurten, berriz, Euskeraz egindako liturgia berriari eman izan zaio, Manuel Lekuona jaunaren ardurapean egina. Aipamen berezia beste biok merezi ukan\* dute: Aita Villasante frantziskotarrak egindako "Jesukristo" liburu bikainak eta "Margo ederduen enziklopedia" sortak, berau ere Manuel Lekuonaren ardurapekoa.

Saria mila dolarretakoa izan da, aurrekoetan bezala; eta, kasualitatea, honetan ere\* apaizen eskuetara joan da. Uste dugu, honelako laguntasunaz Euskal Elizak esker haundiak emateko dizkiola Baionako "Euskal Kulturaren alde" taldeari.

Pertsonalki uste dut, literatura bezala ez direla sariztatzeakoak liturgiako lanak, itzulpenak baitira\* eta gainera literaturarekin zer ikusi guttikoak, dadukaten meriturik ukatu gabe.

Gabriel Arestik, profeta ez bada ere, orain urtebete esan zeutan norengana joateko zen sari hori, eta bete betean igarri ere.\* Hurrengoan ere berdin gertatzen bada, literatur saria gabe, hobe jarriko balute klausula bat hau esanik: "Elizgizonentzat bakarrik".

*Xabier Kintana*

# **Integratu ezak**

Mundu obeago bat nahi daben asko, langileriaren alde itz egiten ikusten doguz. Eta, egia esan, errazoia dauke, langile askok gutxi irabazten dabe ta. Baina, kontuz! Nire ustez, langileriaren alde itz egitea, kasu askotan, mito bat bihurtu da. Hau jazoten da, zeredozer egin nahi ta gehiagoko barik, kapitalismoaren kontra joatearren, langileria idealizatzen danean. Edo ta, modari jarraitzeko, langileria- ren penak kantatzen diranean, ezer gehiago sakondu barik.

Gaurko gizarte kapitalistan, gizatalde aundi bi ikusten doguz:

— sistema kapitalistan integratuak diranak (Estaduko funtzionarioak, enpresa partikularretako ugazaba ta menpekoak).

— integratu barik dagozanak (beste guztiak: jubilatua- tuak, gaixoak, komerziante txikiak, lanik ez dauke- nak, eta abar).

Lehenengo taldean, batzuk ezin obeto bizi dira (Esta- duko funtzionario nagusiak, enpresetako ugazaba asko eta euren menpeko nagusiak). Besteak, ondo edo ez hain txarto behintzat, kasu gehienetan biziteko minimum batetik gora irabazten dabe ta.

Baina bigarren taldean, integratu bakoen artean alegia\*, hortxe dagoz sistema kapitalistaren benetako bitimak.

Jubilatuoen pentsinoak txikiegiak dira. Langile gaixoak kobratzen dabena gutxi da. Komerziante txikiak, nekez ate- ratzen dabe biziteko lain\*. Eta lan barik dagozanak (andra zaharrak, alargunak, errenak, ezinduak, itsuak, umezur- tzak), honeek karidadetik bizi dira, hori bizitea bada.

"Caritas", "Conferencias de San Vicente de Paul", eta egunkari\* ta irratieta\* "Rincón de la Caridad" eta horre- lakoak, XX-garren mendean\* lotsagarri dira. Gure gizarte zibilizatuan, kultura ta teknika hain gora igon diranean, justizia eskatzen dagoan oihu garratz bat da integratu bako gure anaien egoera triste hori. Egoera horrek justizia es- katzen dau eta ez karidadea!

Mitorik ez, jaunak. Langileriak justizia gehiago behar dau, hori bai. Baina langileria indartsua da, ta ba daki bere alde burrukan egiten.

Beste horreek, integratu ezak, ahulak\* dira. Ez dauke burrukan egiteko indarririk eta ezer lortzeko esperantzarik. Eta itxaropena galdu dabenok (esperantza galtzea baino gauza garrantzagarrik ez dago munduan) geure laguntza behar dabe.

*Xabier Gereño*

## **Agur XABIER!**

Begien aurrean daukat: bere motxila eta soka luzea zintzilik, eta beti betiko irria ezpanetan.

Erritar bat genduan, Debatarra jaiotzez; baina hemen eban lan tokia, hemen eskalada lagunak, Xabier danen laguna zan.

Larunbat\* arratsean ikusi neban. Ba joian, hainbat aldiz bezala, bizi erdi eban kirola praktikatzera. Ez eban bildurra zer zan jakin. Indartsua eta bizkorra zan. Zortzi egun dira, bere lagun J. Alberto Juaristirekin Naranjo de Bulnes arkaitz ikaragarriara sartaldetik igon ebal. Ze ordu mingots eta alaiak, ilun eta argiak igaroko zituen biak han, paretan gora joiatzala. Ha bai poza, gailurrera eldu zira- nean, biak bakarrik. Ez eben inoren beharrik. Munduko kaxkarkeria, miseria eta alkar ikusiezina menderatua bai- teuken\*. Zeruko ate ondoan egozan.


Eta gaur, Xabier ila da. Hain maite eban mendiak be- reganatu egin dau, eta gugandik alde egin behar. Xabier, ez noakizu negarrik egitera. Egun bi honeetan triste egon naiz. Baina gero pentsatzen jarririk, zergaitik? zergaitik negar egin?

Zuk azken igoera egin dozu, eldu zara gailurrera, eta gu hemen gagoz sokatik zintzilik. Zu seguru zagozanez, zaindu gaizuz, klabijaren batek urten eta balantzada txar- ririk egin ez daigun. Zu zeruian zagoz. Zelakoa ote dozu zeru hori? Mendi loratsu, aitz zorrotz eta edurez josia izango da, bai, seguru nago. Hor alkartuko zinan beste mendizale askorekin, eta kordadak egingo dituzue; hor ez jatzue ekatxik sortuko. Behin esan zeunstan, eskalatzen erakutsiko zeunstala. Ez ahaztu. Horra joango natxatu halakoren batean ikastera. Urten eidazu bidera, eta jaur- tigi sokea, zu seguru zagozanez, nik ez baitot\* bildurrik izango sokan gora.

*Marisabel Arakistain*



Sony da  
ametsaren izena



**Telebistarik  
arinena,  
Eskurakoiena  
(Atzamar bategaz  
eustekoa)**

SONY edozein tokitarako  
da  
SONY, 4 kilo 1/2'erdikoa  
SONY, 9 arrako pantaila-  
laduna  
SONY, iru senti-giltza-  
duna  
SONY, aurrean jarritako  
abots gehitzaile duna  
SONY, tximist - indarrez  
nahiz bateriaz  
erabiltekoa  
SONY,-k lau letra ditu:

# SONY

Bilboko ordezkari: **J. M. Lara** - Fica, 8 - Tel. 23 96 42

Donostiako ordezkari: **A Mendizabal Obanos** - Peña y Goñi, 5 - Tel. 10811

*Division Aud visual: Telebista aparatuak, magnetofono ta  
videotape-rako ornidua.*

*Division Sobax: Elektro kalkulatzailer eskurakolak.*

## ONGARRI Pentzuak

**S A R B - en ardurapean eratuak**

Pentsatu ondo ta pentsatu ondo zure ganadua.  
Burubako egina, alperreko ekina.  
ONGARRI-k, barriz, buruz egiten ditu pentsuak.  
ONGARRI pentsuak ezagutzen ez badozuz, probatu eizuz.

Egazti, txarri, koneju, txahal gazte, esne-behi, aragitako  
txahal: danentzako pentsuak, bakoitzari dagokiozanak. Bai-  
ta ALIVO esne autsa be txahal txikientzat.

**Eskatu gure banatzaileari edo zuzenbide hontara:**

# ONGARRI, S. A.

**piensos compuestos**

Valle de ACHONDO (Vizcaya) - Telefono 11

## ZORNOTZA

Alberto Iza jauna, hainbeste denboratan, 14 urte inguru, Zornotzako alkate izandakoa, dimititzeko egoalako zurrumurrua zabaldu zan errian. Antza danez, ez da sus-trai bako zurrumurrua baino izan, oraindino erriko alkatetzan jarraitzen dau ta.

Kronika hau argitara orduko, igaroak izango dira erriko jai nagusiak. "Unión Deportiva" alkartekoak, uztailaren\* 17-an, gau jaialdi bat antolatu deuskue pelota tokian. Ber-tan parte artu eben "Enarak" eta "Oinarriak" euskal orkes-tak, eta Bittor Egurrola Gernikako kantari famatuak.

Zezen plaza eder bat bere jarri da, Zugazabeitiaren alondiga egon zan lekuan, Durangorako bide ondoan eta Etxanorako bide asieran. Ipini dituen prezioak ikusi ez-kero, ez dot uste jende askorik joango danik.

Uztailaren\* 26-an, Txomin del Regatoren saialdi bat egongo dala irakurri dot programan. Honelako memeloke-riak bakarrik faltatzen jakuz, egitaraua\* osotzeko.

Aspaldian isildua zala uste neban, baina oker nengoa-n zoritxarrez. Jakingo ote dau jaun horrek zenbat kalte da-kartson euskerari bere saialdiekin?

R. Espinosa

## AULESTIA

Aulestiako zaindaria, San Joan Bateatzailea da. Hori dala ta, erriko jaietarako zerbait antolatu behar.

Oraingo jaiak ez dabe lehenagokoen giro ta alaitasunik. Ohitura asko galtzen goaz. Gazteak nahiago dogu erri aun-diagoetara joan. Oraingo jaiak motelak dira.

Beste urte askotan legez, aurten be izan dira dantza, auresku ta abar. Beste zerbait barri be asmatu deuskue aurten gure jai eratzaileak: Berbena eder bat. "Los Do-blones" talde sonatuak parte artu eban. Talde honetako bostetik bi Aulestiakoak dira. Ez dakigu horregaitik ote zan; baina jendea eurrez batu zan, asko errikoak eta ge-hiago albo errietakoak.

Jaialdi hau pelota tokian izan zan; aurretiaz horreta-rako ondo apainduta egoala.

Pelota tokiak pelotan jokatzeko izan behar leukee, eta gero beste gauzetarako; baina, tira! gatx erdi, beragaz zer-baiterako baliatzen gareanean be, Aulestia pelotari erri izan arren, eta bertan pelota zale asko eta bai pelota toki polit bat be egon arren, ez daukagu pelota jokoak eratzeko zaletasunik. Alferrik, gehiengan, gure jolas toki barria.

E. Jaio

# Euskal Kantak



### Urretxindorak

Aitorren Hizkutz Zaharra  
Anushtka  
Gurdi ardatzak  
Munduko bideak



### Benito Lertxundi

Gure bide galduak  
Bihar itxaropen  
Gazte sentimental



### Ameslariak

Arren jauna  
Berriro hasi  
Baby nerea  
Bihotz, anima, bizitza

Disko etxe guztietan saigai.



**IMPRENTA IDEAL**

Bengoetxe - GALDAKANO

idazkirik onenen

serbitzurako irarkola

**I. BERBAK**

(Ale honetan izartxu bategaz agertzen ditranak)



**Bizkaierazkoak**

ALA, arau, *según, a medida.*  
 ARRAGO, *crisol.*  
 ARO, época. Erdi Aro, *Edad Media.*  
 ARRO, *cuenca de río.*  
 BAGE, barik, gabe.  
 BEHINEN, printzipalen.  
 BAITEUKEN, bait euken, euken eta.  
 BAITETSAT, bait deustsat, deustsat eta.  
 BAITOT, bait dot, dot eta.  
 EGITARAU, *programa.*  
 ENPARADU, *restante.*  
 IDAZKARI, *secretario.*  
 INOAN, esaten eban.  
 IRRATI, radio.  
 IRULE, *hilandera.*  
 LAIN, beste, aina.  
 OSTERA, *viaje, excursión.*  
 SALMENTA, *venta.*  
 UDAL, *Ayuntamiento.*  
 ZIDAR, urre zuril.  
 ZINGIRA, *pantano.*

**Euskera batukoak**

AHUL, makal.  
 ALEGIA, *a saber.*  
 AMETS, ames.  
 AMILDU, *precipitarse.*

ARI IZAN, jardun.  
 ARITU, ari izan, jardun.  
 ARRAS, guztiz.  
 ASKI, nahiko.  
 AUSARTU, *atreverse.*  
 BAITA, bait da, da ta.  
 BAITAN, barruan.  
 BAITIRA, bait dira, dira ta.  
 BAITU, bait du, dau ta.  
 BAITUTE, bait dute, dabe ta.  
 BERAZ, hori dala ta, *por consiguiente.*  
 BESTALDE, gainera, *además.*  
 BIAIZTERI, *Laguardía.*  
 BILDU, batu.  
 EDUKI, euki.  
 EKAIN, bagil, *junto.*  
 ERANTZUKIZUN, *responsabilidad.*  
 ERE, bere, be.  
 ERORPEN, *caída, derrota.*  
 ESKAINI, eskini, eskeini, *ofrecer.*  
 EZTEIAK, ezteguak, *bodas.*  
 FUNTSEZKO, *fundamental.*  
 GALDERA, galde, itaun, *pregunta.*  
 GARAIPEN, *trunfo, victoria.*  
 GUTXIETSI, *subestimar.*  
 HAUTATU, aukeratu, *elegir.*  
 HIELBURU, asmo, *fin, objetivo.*  
 HERRIALDE, *provincia.*

TURBIL, urre.  
 IGANDE, domeka.  
 IRAIL, *septiembre.*  
 IZANEN, izango.  
 LARUNBAT, zapatu.  
 MEHATXATU, zemaitu, *amenazar.*  
 MENDE, *siglo.*  
 NABARITU, *percibir, advertir.*  
 OHARGARRI, *perceptible.*  
 OHARTU, konturatu.  
 OHI IZAN, *soler, acostumbrar.*  
 OROKAR, *absoluto.*  
 UKAN, izan.  
 UZTAIL, garagarril, *julio.*  
 ZENBAIT, batzuek.  
**Beste euskalkietakoak**  
 ANTZINATE, *Edad Antigua.*  
 BARAZKI, ortuari, *hortaliza.*  
 BILERA, batzar, *concentración.*  
 EGUNKARI, eguneroko *periodiku.*  
 ESKUALDE, *comarea.*  
 JADANIK, *ya.*  
 MENDEBAL, *occidente.*  
 OROITARRI, *lápida conmemorativa.*

**II. IDAKTEKO MODUA**

**Txarto:**

Ez dakit, aldizkari horrek bere burua inori saldu deustson edo ez.  
 Laboristak edo kontserbadoreak, guretzako bardin.  
 Gure liburua jakintsu batzuei eroan geuntsen, zuzen edo oker ote egoan ikusi eien.  
 Gizarteak zapaldu egiten gaitu, tresna bat baginake legez.  
 Problema honen soluzinoa oso erraza dala esan leike.  
 Ahaleginak egin arren, ezin leike inor osatu.

**Ondo:**

Ez dakit, aldizkari horrek bere burua inori saldu deustson ala ez.  
 Laboristak nahiz (zein) kontserbadoreak, guretzako bardin.  
 Gure liburua jakintsu batzuei eroan geuntsen, zuzen ala oker ote egoan ikusi eien.  
 Gizarteak zapaldu egiten gaitu, tresna bat bagina legez.  
 Problema honen soluzinoa oso erraza dala esan leiteke.  
 Ahaleginak egin arren, ezin leiteke inor osatu.

Imanol B.

**OHAR BAT**

Anaitasuna hau indartu ta zabaltzeko bide asko dira. Baina, onenatariko bat, arpidedunak ugartzea da. Beraz ba, eizu beste arpidedun barri bat.  
 Urte guztiko ordaina, 100 peseta norberak zuzenki egitekotan, eta 117 kontrarenbolsoz.

Bidaldu txartel hau: Apartado 17. Galdakano.  
 Izenabizenak .....  
 Bizitokia .....  
 Erria .....  
 Mila esker!

BIZKAIKO AURRESKI KUTXAK Bilbon eta Probintzi guztian, laguntzarik zabalena emoten dihardu gizarte preminetarako, eta osakuntza arloan laguntasunik jatorrena.

**Zure dirugordetzerako:**

**Caja de Ahorros Vizcaina**

Ofizinarik behinenak: Plaza de España, Bilbao  
 Teléfono 24 36 00 (bide ugariak) - 21 12 90  
 URIAN, 16 AJENTZIA

Probintziako erririk naguzienetan 70 etxeordezko  
 Madrileko ajentzia: I. C. C. A. Alcala 27  
 Tel. 2 21 49 95

**A R A B A**

Bizkaiko eskualdeekin\* amaitu dogu. Mendebaleko\* erri galduak, Enkartazinoak, Bilbo Aundia, Uribe-Butroe, Arratia, Busturia, Lea-Artibai eta Durangoaldea igaro dira zatika zatika.

Orain euskaldun askok gutxi ezagutzen daben errialde\* battegaz asi behar dogu: ARABA-rekin. Gero Gipuzkoatik jarraitzeko.



Arabako Diputazioak oraindik amaitu barik dauka eskualde-zatiketa; baina sortu barri dau «Comisión de Planificación y Desarrollo Comarcal» dalakoa, lan interesgarri bat egiten asi dana. Gazteizen larregitasuna eta errien txikiegitasuna konponzeko, beranduegi beharbada.

Horregaitik, batzorde horrek egiten diharduan lanari jarraituko deusagu, osorik ez bada bere, bertako tekniku zuzendariak esaten eustanez, oraindik zatikatze zihur finkatu bat egiteko dabelako, eta gauza batzuk aldatu bere egingo diralako seguru asko.

Beti bezala, historiari be azterketa bat egingo deusagu, gaurko balio dauanean batez bere. Aipatu be egingo dogu, ba dirala erri batzuk Bizkaia edo Errioxari begira dagozanak, Aiala Lurreko eta Biaizteri\* aldekoak esate baterako, eta bestaldera Otxandio, Ubidea eta Miranda inguruak. Batzorde horrek kontuan ditu puntu horreek; eta poztutekoa da, gaurko muga aldrebesak austeko bidean jartzeko pausurik txikiena emoten badau, errialdkeriak alde batera utzita.



Arabak behetik gorako eratze interesgarri bat eukan: 438 kontzeju, 53 anaiarte edo hermandadetan alkartzten ziran; honeek 7 taldean, eta 7 taldeok Araba egiten eben. Taldeak, ordez «cuadrilla» deituak, honeek ziran: Gasteiz, Mendotza,

Agurain, Zuia, Añara, Biaizteri eta Aiala.

Gaur, orainarte lanak doazan eran, honetara banatuko dira eskualdeak: Comarca Cantábrica, Valles Alaveses, Rioja Alavesa, Montaña Alavesa, Estribaciones del Gorbea, Llanada Oriental eta Llanada Occidental. Beraz, bertako euskal izen jatorrak jartzen ez dira gehiegi ahalegindu batzordekoak.

Honeek beste arazo battegaz bere aurkitzen dira: erdi erdian Trebiño aurkitzen da, eta honek ez deutse ixten beste eskualde argi bat osotzen. Eskualde hau. X-garren mendean,\* «Ribo de Ibita», «Rio de Ibaiuda» izenagaz agertzen da eta orain, Gaztelakoak diran Trebiñoko erriak eta Arabako batzuk artzen zituan, Uda eta Inglares ibai arloan\* dagozanak. Guk Trebiñoren lapurreta onartzen ez dogunez, eskualde bat legez azalduko dogu, beste arabar erriekin, xehetasun gehiago emonaz.

Beraz,\* gure lan hau behin-behinekoa da. Ez da ezer finkatzeko, Arabaren barri emoteko baino. Hori dala ta, historiaren eta gaurko teknokrata bihotz bakoan artean geure kautako aukuramen batzuk bere egin beharko ditugu. Tamalgarría, lehengoari osorik erromantizismuz eutsi nahi izatea; baina tamalgarríako, teknokrata batzuek Arabaren izatearen barri ezer ez jakitea.

Urrengo zenbakian, Kantauri itsasora begira dagoan Aiala eskualde nortasun aundikoagaz asiko gara. Gaur bakarrik dakarguz hona, 934 urtean San Millango Katalogoan agertzen diran Arabako zenbait\* erriren izenak.

Zorioneko H beste aldekoa bakarrik dala uste dabenak argi ikusi leikee, letra hori Araban be erabilten zala. Gaur be gelditzen dira holako izen batzuk, nahiz eta gehienak aldatuak izan, aspirazinoa galdu zanean. Baina H hori lehen pronuntziatzen zala argi dago, gaurko gure Iparraldeko itz berberetan agertzen baita.\* Hona hemen:

Zuhatzu, Hurizahar, Huribarri Ubarrundikoa, Huribarri Harhartzukoa, Ehari, Haritzabaleta, Igelhegieta, Hiruzahaza, Harriabalgaga, Hegiraz, Hegirazko Huribarri, Harriolha, Zuhatzolha, Hurigurena, Mendihil, Haizkoeta, Bardahuri, Barolha (gaur Baroja), Basahuri, Okerhuri, Haizpifleta, Ihurre, eta beste mordo bat. Zuhaitz, hiri (bizkaieraz huri), harri, hegi, hil, haritz, hiru, haitz, ez al dira gaur be H-kin? Gure euskaltzale askoren izkuntza-analfabetasuna eta alderdikeria utsa argitzeko ezaugarri bikainak.

J. L. Linzundia

**Oizko San Kristobal barrizatzeako asmotan**

Jakina danez, Oiz mendiaren gainean, Munitibarrera begira, San Kristobal izenarekin ezagutzen dan ermita bat dago. Aspaldian, beste ermita askorekin jazo izan dan legez, kasu aundirik egin barik dago. Bestalde, mendizaleak barrura bertara sartzen dira, batez bere neguan; eta, atek itxita egon ezker, teilatutik bere bai, ituginak eginaz. Gehienetan zabalik egoten dan ezker, mendi ganaduak bere barruratzen dira, euren lorratzak barruan utzia, eta ez apainenak.

Oiz gainera, bere ondoan eta urrunago diran errietatik, hainbeste jende igoten dau, batez bere Garaitik gorako bidea zabaldu dan ezkerotzik. Bertan, ermitearen ondoan, TV-ko tresna bat jartzekotan dira, eta aterpe barri bat egiteko asmoa dago.

Orduan —galdetzen dau jendeak eta batez bere Munitibarko erretore dan Jesus Atela abade jaunak— zegaitik ez barrizatu ta eratu aipaturiko ermita hau?

Horretarako, suskruzino erriko bat egin beharko litzake, batez bere mendizaleen artean. Horrelan, ermitearen barrizatzea ez litzake Munitibartarren arazoa bakarrik izango, Oiz ondoko jende guztia baina. Bestalde, Garaitik gorako bidetik igoten dabenak, Durango aldekoak dira gehientsuenak. Beraz, «Gerediaga» alkarteak bere honetan parte artu behar leukela uste dogu. Entzun dogunez, Garaiko alkate jaunak gogotsu ekingo leuskio arazo honeri, bere errian egin dauan apainketaren jarraipen bat balitz bezala.

Jesus Atela abade gazteak esan deuskunez, ermitea barrizatzerakoan, euskal kutsua emon beharko litzatekio eta, noizean behin, meza bat emon bertan, batez bere uda denboran, mendizaleak Jaungoikoaren Itza entzun ahal izanez gainera, mendia paseo lekua ta beste gauza asko be ba dala danak jakin leien.

Nok ekin behar deutso lanari?